

BALIABIDEAK

Hau da behar ditugun baliabideen zerrenda:

- **Sistema informatikoa:** Aplikazioa egiteko eta mantentzeko sistema informatiko bat beharko dugu.
 - **Konexio ona:** Bulegoan konexio ona izan beharko dugu. Linea ezberdinak edukitzea komenigarria da. Linearen bat erortzen baldin bada beste linea bat edukitzeko.
 - **Zerbitzaria:** Gure aplikazioa gordetzeko zerbitzari bat beharrezkoa izango zaigu. Gure bulegoan zerbitzari bat edukitzeaz gain, beste eraikuntza batean ere eduki beharko dugu zerbitzari bat (kasuren batean gure bulegoan dagoen zerbitzariari edozer gertatzen bazaio, datuak ez galtzeko). Gure bulegoko zerbitzarian erabiltzaileen datuak eta aparkalekuek ematen dizkiguten zuzeneko datuak (aparkatzeko espazio libreen inguruko datuak adibidez) egongo dira gordeta. Beste eraikuntzan edukiko dugun zerbitzarian erabiltzaile guztien datuak eta datu egonkorak gordeko dira. Erabiltzaile berriak egongo balira, egunean bertan eguneratuko litzateke informazioa.
 - **Ordenagailuak:** Ordenagailu sorta oso ona eduki beharko dugu aplikazioaren sormena aurrera eramateko.
- **Informatikari bat:** Informatikari bat beharko dugu gure aplikazioa sortzeko, guk ez baitakigu aplikazio bat egiten.
- **Aplikazioa:** Aplikazio on bat edukitzea da gure negozioan garrantzi gehien duena. Aplikazioa ona izan dadin informatikari bat kontratatuko dugu eta aplikazioa erakargarria izan dadin **diseinatzaile** bat ere kontratatuko dugu.
- **Bulegoa:** Lanean aritzeko bulego bat beharko dugu. Eta bertan lana aurrera eramateko ordenagailuak beharko ditugu.



